

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2011ko uztailearen 1a. VIII. urtea. 2.254. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Tolosako Kultur Etxean dagoen Gaztelekuan aurkeztu zuten atzo, Gau Giroko egitaraua. LURKIZU

17 garagardo mota dastatzeko aukera egongo da Iruran

Garagardo Azokak 18:00etan zabalduko ditu atek, gaur; hiru egunetan zehar pilotalekuak alemaniar taberna baten itxura izango du **04**

Iñigo Martin «oso gustura» agertu da Tolosand Blues-ekin

Gaur eta bihar «goi-goi mailako artistak» etorriko dira Tolosara, jaialdiaren koordinatzailearen esanetan **03**

Tolosa kulturaz jantziko da Gau Giro ekimenari esker

Abarlotz Olanok irekiko du kultur egitaraua uztailearen 8an; Joaquín Chacón, Musika Banda, eta Liverpool ere entzun ahal izango dira **02**



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



ziklo guztiak euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

MATRIKULA EPEA: Uztailearen 4tik 8ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mekanizazioa
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Informatika
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak
- Metal eraikuntzak

Orain ingeleraz ere bai!!

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra



Abarlotz Olano eta Ibai Iriarte, egitarauaren aurkezpenaren. ITZEA URKIZU

Abarlotz Olano kantari zaldibitarrak irekiko du Gau Giroko egitaraua

Musika, zinea eta dantza izango dira nagusi; erakusketak ere ikusgai izango dira Aranburu jauregian

Itzea Urkizu

Beste urte bezela, Tolosako Udalko udako gauetarako emanaldiak antolatu ditu, kalean. Gau Giroren egitaraua aurkeztu dute, eta horrekin batera, baita uda osoan zehar izango den kultur eskaintza ere.

Gau Girori Tolosand Blues-ek irekiko dio bidea, eta Topic-eko emanaldiek ere gaztetxoenei zabalduko dizkie atea. Horrez gain, zinea izango da aire librean, eta nazioarteko dantza ere bai. Era berean, Aranburu jauregiako erakusketak zabalik izango dira udan.

Gau Giro datorren astean

Aipatu bezala, musika, dantza edo zinea izango dira ikuzizunetako batzuk. Gau Giro barruko emanaldiak honako guenean izango dira aurtengo udan: Euskal Herria plaza, Lopez Mendizabal plaza, Plaza Berria, Amarotz auzoa eta Fronton kafetegia.

Ibai Iriarte alkateak eta Jokin Ansorena kultur teknikariak azaldu dutenez, jada programazioan sendotuta dauden ekitaldiez gain, gauza berria sartzen saiatu dira, eta «garai txarrak izan arren, egitarau osatua egiten saiatu» direla nabarmendu du Ansorenak.

Horrela beraz, datorren uztailaren 8an, abeslari zaldibitar batek irekiko du egitaraua. Plaza Berrian eskainiko du kontzertua, 22:30ean, Abarlotz Olanok. 10 urte daramatza euskal kantagintza tradizionala lantzen, eta 2008an Nortasun Saria irabazi

zuen Euskal Kantu Txapelketan. *Antilla* izeneko bere lehen diska aurkeztuko du Tolosan; Michel Ducaurekin elkarlanean aritu da. Abarlotz Olanok bizitzak eman dizkion sentipenak abesten dituela azaldu du, eta «abesteko mila arrazoï» badirela nabarmendu du.

Uztailaren 15ean, urteroko jazz kontzertua izango da Fronton kafetegian. Aurten, Joaquín Chacón izen handiko gitarrak jotzaileak, eta Gonzalo Tejadak eskeini-ko dute emanaldia, 22:30ean.

Garai batean San Inazio bezperako kontzertua zena, uztailaren 22an ospatuko dute aurten. Tolosako Musika Bandak emanaldia eskainiko du, Lopez Mendizabal plazan, 22:30ean. Rock doinuak, baltsak, kantu mexikarrak eta pasodobleak izango dira entzungai.

Uztailaren 29an, berriz, Portugalteko Nazioarteko Folklore Jaialdiko talde bat izango da gu-rean. Belgradoko Symionov dantza taldea izango da, 22:30ean Euskal Herria plazan.

Abuztuaren 26an, Liverpull taldeak kontzertua eskainiko du Plaza Berrian, 22:30ean. The Beatles, REM, Queen eta beste hainbat talderen eragina dute.

Antzerkiak ere izango du bere lekua, eta irailaren 2an, 20:00etan, Pikor antzerki taldea izango da Euskal Herria plazan.

Azkenik, aipatzekoa da Amaro-ko zine egitaraua ez dutela oraindik zehaztu, eta udal-erakunde duela horren berri.

Emakumea izango da 2012ko egutegiko ardatza

Parte-hartzaileek irailaren 4ra bitarte izango dute, euren argazkiak aurkezteko aukera

I. Urkizu

Urtero bezala, argazki lehiaketa antolatu dute Tolargik eta Tolosagasa, Tolosako Udalaren laguntzaz. Aurten, 2012ko egutegi ofiziala osatzeko aukeratu duten gaia *Emakumea eta Berdintasuna* da.

Lehenengoz, 2006. urtean antolatu zuten lehiaketa, eta bi urtez Tolosaren inguruko argazkiak bildu zituzten egutegirako. 2008. urteko egutegian, natura ardatz zuten Tolosako argazkiak aurkeztu behar izan zituzten partaideek, eta 2009an, berriz, Tolosako jaien ingurukoak. 2010. urteko egutegian euskara eta kultura izan ziren hari nagusia, eta aurtengoan, tolosarren erretiratuek bete dituzte egutegiak.

Urteroko moduan, tolosarrek aurkeztutako argazkiekin beteko dute 2012. urteko egutegia, eta lehiaketan parte hartu nahi duten herritarrek datorren irailaren 4ra bitarte izango dute, argazkiak bidaltzeko aukera.

Baldintza garrantzitsuenetarikoa honakoa da: argazkiek nahitaez Tolosan ateratakoak izan behar dute. Hauek, argazki paperean nahiz formatu digitalean aurkeztu daitezke. Argazkien neurriari dagokionez, berriz, paperezkoen gehieneko neurriak

20x30 cm-koak izan behar dute; euskarri digitalean aurkeztu beharreko argazkiek, aldiz, 4 Mb-eko tamaina izan beharko dute gutxienez, eta jpg formatuan aurkeztu beharko dira.

Aipatzekoa da, argazkilari bakoitzak 25 argazki baino gehiago ezin izango dituela egutegirako lehiaketara aurkeztu. Lanak, Tolosa edo Tolargiko bulegoetan utzi daitezke, eta baita honako helbidera posta bidez bidali ere: Tolargi (Rondilla kalea, 34 behe) edo Tolosagasa (Aroztegieta kalea, 18 behe).

Argazki erakusketak

Aurkezten diren argazki guztien artean, 40 aukeratuko dira, eta hauek izango dira finalistak. Lan hauekin, argazki erakusketak antolatuko dute Aranburu jauregian, irailaren 23tik urriaren 9ra bitarte. Erakusketara bertaraten diren herritarrek, gainera, euren bozka eman ahal izango diote gehien gustatzen zaien argazkiari, eta lanik bozkatuenak, egutegiak ateratzeaz gain, publikoaren saria jasoko du.

Guztira, 13 argazki jasoko dute epaimahaiaren saria. Erabakia datorren urriaren 15ean plazaratuko dute, epaimahaiko kideek: Tolargiko arduradun bat; Tolosagasa arduradun bat; 2011ko egutegiko irabazlea izan zen Javier Ortiz; Miren Atxaga, erakundeak gonbidatutako argazkilaria; Josebe Iturrioz, udaleko berdintasuneko teknikaria; eta kalitateko bozka emango duen udaleko ordezkaria.

• tolosa@hitza.info



Emakumea izango da aurtengo lehiaketaren ardatza. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosand Blues «sekulakoa» izango da Iñigo Martinen esanetan

Jaialdiaren koordinatzailea gustura agertu da lortu dituzten «goi-goi mailako artistekin»

Asier Imaz Tolosa

Gaur hasiko da Tolosand Blues jaialdia. Plaza Berrian izugarriko bi kontzertu ikusteko aukera egongo da gaur eta bihar. Alde batetik, Sax Gordon eta Lluís Coloma igoko dira oholza gainera. Bestetik, larunbatean, Janiva Magness ikusteko aukera egongo da. Hiru artista handi hauek, aurkezpenik ez dute behar arlo honetako zaleentzat. Gainontzekoentzat, nortzuk diren jakitea nahikoa da entzuteko gogoa izateko.

Doako kontzertuak direla kontuan izanik, kezka leku on bat aurkitzean egongo da.

«Ez da erraza izan»

Iñigo Martin Tolosand Blues-eko koordinatzailea da. Irailaren amaieran hasi ziren aurtengo ekitaldia prestatzen: «Lehenengo gure aurkuntza zinen ikusten dugu, ondoren, musikariaren kalitatea eta Tolosara etortzeko duten prestutasuna aztertzen ditugu».

Behin lan horiek eginda, egunak artistez betetzen dituzte. Lortutako emaitzarekin «oso gustura» agertu da Martin. Hala eta guztiz ere, zailtasunak egon direla onartu du: «Kontuan hartu behar da Janiva Magness ekartzea ez dela batera erraza izan, baina azkenean lortu dugu. Mundu mailan izugarriko ospea duen artista da; azken 8-10 urte hauetan sekulako gorakada izan duela. Sari ugari jaso ditu; leku guztietan kritika onak eta laudorioak besterik ez ditu jaso».

Janiva Magness-ek urtean 200 kontzertu inguru eskaintzen ditu, eta bihar, 22:30etatik aurrera, Tolosako Plaza Berrian egongo da.

Saxoa eta pianoa batera

Tolosand Blues-eko izar nagusia Janiva Magness izango baldin bada ere, Sax Gordonek eta Lluís Colomak ere euren ekarpena izango dute. Saxo jotzaileak eta pianistak elkarrekin eskainiko dute kontzertua. Honek aurtengo edizioaren maila nolakoa den azaltzen du.

Lluís Coloma bere taldekideekin etorriko da gaur Plaza Berriara. Bertan, Sax Gordon gehituko zaie. Martin kontzertuaren zain dago jadanik: «Colomarekin saxo bat etorriko da, eta Gordonek ere saxoa jotzen duenez, bien arteko duela ikusteko aukera izango dugu: oso interesgarria izango da».

Lluís Coloma pianoarekin eta organoarekin Europako onenatarikoa da, eta AEBtara sarri joaten da. Martinen esanetan, «benetako izarra da».

Sax Gordonen inguruan, Blues eta Rhythm&Blues estiloetan ez duela aurkezpenik behar dio Martinek: «Mundu mailako izarra da, onenetakoa, eta handienekin hartu du parte diskoetan eta zuzenekoetan».

Bi kontzertu hauekin batera, De 2 en Blues Band, The Boogalords eta Sheilah Cuffy etorriko dira Tolosara gaur eta bihar. Goi mailako egitaraua osatu dute, eta horren jakitun da Iñigo Martin: «Jendeari gerturatzea gomendatuko nioke. Luxu bat da Tolosand horrelako kontzertuak ikusteko aukera egotea. Nire ustez, galdu ezinezko aukera bat da, goi-goi mailako emanaldiak egongo baitira, sekulakoa izango da».



Kritikei aurre eginaz, izar bilakatu den ahotsa

➔ Janiva Magness Detroitko kantaria da, baina geroago Kalifornia hegoaldera joan zen, eta gaur egun han bizi da. Emakume honi zaila izan zaio ospea hartzea eta karrera egitea, neurri batean hasieran jaso zituen kritikengatik, bere buruarenganako konfiantza hondatu eta musikan aritzeko ametsa bertan behera utziarazi ziotelako. Horrela, bada, bulegoko lan bat bilatu eta, egun osoan han lanean aritu behar izaten zuenez, urtebete baino gehiago musikatik eta agertokietatik erabat urrundurik egon zen.

Zorionez, familia eta lagunek musika ibilbidea ez uzteko konbentzitu eta berriro hasia lortu zuten. Musika itzuli ondoren, iraunkortasun handiarekin eta bere buruarekiko fedea berreskuraturik, egungo blues-ean eta soul-ean ospea hartzea lortu eta azken urteetan era guztietako sariak irabazi ditu.

Egungo blues musikako emakume kantari onenaren Blues Music Award sariaren irabazlea izanik 2006 eta 2007an, kritikak eta entzuleek txalotu, musika alorreko kide-ek goretzia, eta *Living Blues* aldizkariaren arabera bere disko berriena den *Do I Move You?* irrati espezialistetan gehien jarritako diskoa izanda, argi dago Janiva Magness gora egiten ari den balioa dela, bere ezaugarri nagusiari esker: bere ahotsa.

Blues musikari garrantzitsuenen miresmena sortu du Sax Gordonek

➔ Sax Gordon Rhythm&Blues-eko itzal handiko saxofonista sutua da, zuzenean benetan ikusgarria. Detroiten jaioa, Ameriketako Estatu Batuetan zehar areto txikien zirkuituan lan eginez bereganatu zuen musika-esperientzia, eta bere kide profesionalen miresmena eragin zuen; hainbestearinoko miresmena, non besteak beste Jay Macshan, Jimmy Witherspoon edo Champion Jack Dupree blues musikari garrantzitsuek beraiekin lan egiteko eskatu ziotela Sax Gordoni. Gordonen kontzertuen bizitasuna eta musika interpretatzen jartzen duen garra direla-eta, haren emanaldiak ikustea merezi duten ikuskizunak izaten dira.



Boogie Woogie musika motako erreferentzia eta espezialista

➔ Bartzelonan jaio zen 1973an. Blues eta Boogie Woogie alorreko pianista gogotsu eta ezagunenetakoa da. Gazte-gaztetatik izan zuen Colomak Jerry Lee Lewis-en, Roosevelt Sykes-en eta Alan Price-en diskoen eragina, eta pixkanaka piano klasikoaren ikasketetatik urrundu, Rock&Roll-ean soil-soilik aritu zen, era autodidaktikoan. Laster erakutsi zuen trebetasun harrigarria zuela Blues eta Boogie Woogie-rako. Musika mota horretan espezializatzen hartzen da Lluís Coloma, eta hainbat sari irabazi ditu.

→ Laburrak

Odol emaleei deialdia hilaren 4erako

IBARRA ▶ Odola emateko aukera egongo da ambulatorioan astelehenean, hilaren 4an, 19:00etatik 21:00etara. Uda garaian ere odol ematea beharrezkoa dela aipatu dute, eta gazteei deialdi berezia egin diete.

Azken atxiloketa salatzeak elkarretaratzeak, gaur

POLITIKA ▶ Frantzian euskal herritar bat atxilotu du polizia ETAko kidea delakoan. Berri agentzien arabera, atxilotua Oier Ardanaz Armendariz da. Amnistiaren Aldeko Mugimendua atxiloketa bakoitzaren ondoren, hurrengo egunean, elkarretaratzeak egin ohi ditu. Kasu honetan, eskualdeko herrietan gaur egingo dituzte elkarretaratzeak.

Udaberriko ikastaroan izena emateko aukera

TOLOSA ▶ Udaberri dantza taldeko 2011-2012 ikastaroetan izena emateko azken eguna gaurkoa da. Tolosako Kultur Etxe azpiko solairuan egongo dira Udaberrikoak 17:00etatik 20:00etara. Haur, gazte eta ez hain gazteak animatu nahi izan dituzte ikastarora. Dantza jendarteratzea da Udaberrikoen helburua, eta horretan jarraitze-ko asmoa azaldu dute.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Quad-a.** 2004 urteko Suzuki LTZ-400 Quad-a salgai. IAT-a pasata, extra askorekin eta oso egoera onean. Interesatuak, deitu 600 75 25 37 telefonora.
■ **Etxe adosatua.** Eguzkitsua, 4 gela, 2 bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, 2 autorentzako garajea, txokoa eta

jardina. Deitu 678 26 76 57 zenbakira.

ALOKAIRUA

■ **Apartamendua.** Peñiscolan 7 pertsonentzako egokitutako apartamendua alokatzen da. Hondartza aurrean. Balkoia, igogailua, aire egokitua, parkinga eta bi igerileku. 617 42 89 52.



Irurako Garagardo Azoka aurkeztu zuten atzo frontoian bertan, antolatzaileek eta laguntzaileek. E. MAIZ

Gaurtik hasita 17 garagardo probatzeko aukera izango da Irurako Azokan

Irurako Ikastolak antolatzen du garagardo azoka frontoian; gaur 18:00etan zabalduko ditu atak

Eneritz Maiz Irura

Urtero bezala, Irurako ikastolak Garagardo Azoka antolatu du astebururako. Gaur 18:00etan zabalduko ditu atak, eta hortik aurrera garagardoa, saltxitxak, ukondoa edo euskal pastela dastatzeko aukera izango da. Gaurtik igandera bitarte izango da azoka eta hiru egunetan 18:00etan zabalduko ditu atak, ixteko ordurik ez dute jarri.

Atzoko egun guztia antolatzen pasa zuten, eta aurtengoa aurkezteko aprobetxatu zuten. Bertan izan ziren ikastolako eta udaleko ordezkariak, baita antolatzen eta

↓ Irurako Garagardo Azoka

UZTAILAK 1, 2 ETA 3

- **17 garagardo.** Kronenbourg 1664, Warsteiner Premium Verum, König Ludwig Weissbier, Foster's, Newcastel Brown, XV Selecta San Miguel, San Miguel Sin, Clara San Miguel, Murphy's, Guinness, Grimbergen Dubble, Grimbergen Blonde, Affligem tostataua, Affligem Blonde, Paulaner Berezkoa, Paulaner HW Artoa eta Paulaner Salvador.
- **Horiak.** 12 garagardo izango dira.

laguntzen ari diren gurasoak, eta guraso eta ikasle ohiak.

Era batera edo bestera, «laguntzaile asko» dituztela gogoratu dute ikastolako langileek. Urtero arrakasta izugarria izaten duela gogoratu dute, Irurako amonek

preparatzen dute bakailaoa tomatearekin, eta eskerrak eman nahi izan dizkiete.

- **Tostatua.** Hiru garagardoa izango dira.
- **Beltzak.** Bi garagardo.
- **Prezioak.** Iazko berak mantendu dituzte. Kafa 3 euro eta botila 2,5 euro. Pitxarra, freskagarriak eta kafea euro bat.
- **Jatekoak.** Ukondoa, bakailaoa tomatearekin, saltxitxa (Frankfurt edo bratwurst), kroketa, Irurako txistorra, Irurako pastelxoak, euskal pastela eta gazta eta irasagarra.
- **Ordutegia.** 18:00etatik aurrera, itxi arte.

Edateko 17 garagardo jarri dituzte; horiak, tostatuak eta beltzak. Botilan ateratzen direnak 2,5 euro, eta gainerakoak 3 euro ordaindu beharko dira. Jatekoen artean, ukondoa 9 euro, bakailaoa tomatearekin 5,5 euro, saltxitxak eta kroketa 2,5 eurotan eta Irurako txistorra 2 euro ordainduko da. Irurako pastelxoak, euskal pastela eta gazta eta irasagarriak 3 euroren truke izango da. Pitxarra, freskagarriak eta kafea euro baten truke jarri dituzte Azokaren arduradunek.

Antolatzaileek nahi duen guztia Irurako frontoira gerturatzerako gonbidatu dute.

Bihar Euskadiko Segar Txapelketako finalerdiak jokatu dira

Zortzi segalari ariko dira bi multzotan banatuta; 18:00etan hasiko dira finalerdiak Aizarnan

E. Maiz

Bihar, hilak 2, Euskadiko Segar Txapelketako finalerdiak jokatu dira Aizarnan. 18:00etan hasiko dira, eta bi multzotan banatuta ariko dira segalariak. Zortzi segalari sailkatu dira finalerdietarako.

Finalerdi bakoitzean, ordu erdiko lana egin beharko dute segalariak ahalik eta belar kilo gehien ebakitzeko. Kasu honetan txu-

kuntasuna ere aintzat hartuko da.

A multzoan, Jon Kanflanka leitzarra, Arkaitz Arteaga baliarraindarra, Jon Intxaurbe zeaurriarra eta Iban Pardo zestoarra ariko dira. B multzoan berriz, Jokin Etxeberria amasarra, Juan Joxe Lizaso asteasuarra, Mikel Alkorta asteasuarra eta Gorka Larrañaga otxandioarra izango dira.

Bost segalari eskualdekoak dira, eta Intxaurbe, Larrañaga eta Pardo lehen aldiz ariko dira Euskadiko Txapelketan. Finalerako, finalerdi bakoitzean lehen biak sailkatuko dira. Sailkatzen diren lau segalarietako, finala hilaren 10ean jokatu da 12:00etan hasita Oiarzungo Pikoketan.

→ Laburrak

Hilaren 9a bitarte, kultur tailerreko erakusketa

TOLOSA > Uztailaren 9a bitarte ikusgai egongo da kultur tailerreko ikasleen erakusketa. Aranburu jauregian dago eta zeramika, pintura, eskulanak, argazkigintza, ehoziriak eta patchworkean egindakoak dira. Ikasturtean zehar egindakoa jendaurrean jarri dute. Asteartetik larunbatera egongo da irekita Aranburu Jauregia 17:30etik 20:30era. Herritar guztiak gonbidatuta daude erakusketa hau ikustera.

Serigrafia saio trinkoetan izen ematea zabalik dago

VILLABONA > Serigrafia saio trinkoak egingo dituzte Gaztelekuan. 18 eta 29 urte artekoentzat, hilaren 9an 10:30etik 13:30era edo 15ean 18:00etatik 21:00etara izango da. Villabonan erroldatuek 12 euro eta besteek 16 euro ordaindu beharko dute. Izena emateko epea hilak 6 da. 12 eta 17 urte artekoek berriz, hilaren 7an 11:00etatik 14:00etara izango dute; erroldatuek 9 euro eta gainerakoek 12 euro ordainduko dute. Izena emateko epea hilak 4ean bukatzen da, 943 69 47 87 telefono zenbakira deituz.

Haur danborradan parte hartzeko izen ematea eta entseguak prest

San Bartolome jaietan egingo dute haur danborrada; izena hilaren 6a baino lehen eman beharko da

E. Maiz Ibarra

San Bartolome jaietako danborradaren prestaketa lanekin eta entseguen hastear daude Ibarrran. Lehenik eta behin, parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute.

Parte hartu nahi duten haurrek, 2007 baino lehen jaioko izan

beharko dute. Haur eta gaztetxo guztiek Zubiaurre, Sendi-Ekintza, Txumitxa, Danon-Txokoa, Ostaize eta Gaztelubide tabernetan eta kultur etxean jarriko diren zerrendetan izena eman dezaten eskatu dute antolatzaileek. Izena emateko azken eguna uztailaren 6a, asteazkena, izango da, eta danborradan atera ahal izateko, gutxienez bi entsegutan parte hartzea ezinbesteko baldintza izango da.

Danborradako entseguak uztailaren 6, 13, 20 eta 27an eta abuztuaren 22an izango dira. Haur eta gaztetxoek 20:00etan izango dute hitzordua Belabieta kiroldegian.

PATXINE JATETXEA



Gure berezitasuna
Euskal sukaldaritzan
eta
etxeko postreak

Tel.: 943 69 10 25 • Errementari kalea, 1 • ASTEASU

Elgetako kadete mailako txapelketa, eskualdekoa

Xabi Tolosa anoetarra eta Jokin Altuna amezketarra elkarren aurka ariko dira, gaur, 22:00etan

Imanol Garcia

Elgetako lau t'erdiko pilota txapelketa ospe handia du pilotarien artean. Gaur finalak izango dira, 22:00etan, eta kadete mailan eskualdeko bi pilotari ariko dira lehia: Xabi Tolosa anoetarra eta Jokin Altuna amezketarra. Tolosa bigarren urteko kadetea da eta Altuna lehen urtekoa.

Bigarren aldian da parte hartzen duela Xabi Tolosak Elgetako Txapelketa. Aurreko urtean Elezkanoren aurka galdu zuen final laurdenetan. Aurtengoan finalera iritsi da eta bidea «asko» kostatu zaiola esan du Tolosak. «Beste guztiak aurrelariak ziren eta ni atzelaria. Niretzako finalea iristea saria da».

Altunaren aurkako partida «oso zaila» izango dela dio Tolosak. «Aurreko bi partidak ikusi dizkiot eta ikaragarri jokatzen du». Anoetarrak garbi du opari gutxi egiteaz gain ahal dela pilota atzera bota behar duela, Altuna aurreko koadroetatik ateratzeko. Tantoak egitea ez da bere berezitasuna, baina txapelketa honetarako entrenatzen aritu da jokoaren alde hori.

Elgetako finala jokatzeak «beste motibazioa bat» ematen dio Tolosari. «Txapelketa handia da, entzuten zuten», dio anoetarrak. Aurtengo denboraldiko beste lorpen garrantzitsua Euskal Herriko txapelketa izatea izan da, frontoi guztian. Orain udan lanpetuta ariko da, hainbat txapelketa jokatuko baititu. Bihar, hain

justu, Usubilen ariko da, herri horretako festetan. Alegiako I. Pilota Txapelketa ere parte hartuko du anoetarrak.

«Ondo sakatu eta arriskatu»

Jokin Altuna lehen aldiz ari da parte hartzen Elgetako Txapelketa. Amezketako aurrelariari lehen hiru partidak zailagoak egin zitzaizkion azken biak baino. «Azken bi partidetan hobeto moldatu naiz», esan du. «Elgetako pilotalekuko zorua ezberdina da eta erabiltzen den materiala indartsuagoa da».

Altunak ez zuen espero finalean izatea. «Lehenengo urtea da parte hartzen dudana eta nire asmoa probatzea zen», dio. «Gero, gauzak ondo joan dira eta zorte pixka batekin finalean sartu naiz». Txapelketa «oso garrantzitsua» dela eta «oso gustura» ari dela dio amezketarrak.

Gaurko finala zaila izango dela dio Altunak. «Tolosa fisikoki indartsua da eta ikusi beharko dugu nola joaten den partida», esan du. «Nik esperantza badut irabazteko. Aurrean jokatzen saiatu beharko naiz. Ondo sakatu eta arriskatu egin beharko dut tantoak egiteko».

Gustura dago Altuna aurtengo denboraldiarekin. Hainbat txapelketa jantzi ditu, besteak beste, Berria Txapelketa irabazi zuen Zazpi-Turri elkartearekin eta Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen binaka kadete mailan. Udari begira, hainbat txapelketa ditu: Hitza Txapelketa, Antiguakoa, Gasteizkoa... Uda lanpetua izango duela gustura dago amezketarra. «Udan libreagoa egoten naiz, eta gustura nago partida asko izango ditudalako».

Elgeta Txapelketako finalerdiak ikusi ahalko dira, gaur, 16:30ean, ETBsatean.

I. Pilota Txapelketa antolatu dute, herriko festei begira

Jubeniletan eta afizionatu mailan izango da txapelketa; finalak herriko festetan jokatuko dira

I. Garcia Alegia

Intxurre elkarteak Alegiako I. Pilota Txapelketa antolatu du. Finalerdiak eta finalak jokatuko dira eta azken hauek herriko festetan egingo dira. Bi mailatan lehiatuko dira, jubeniletan eta nagusietan. Gaur jokatuko dira lehenengo finalerdiak; datorren ostiralean, hilak 8, bigarren finalerdiak izango dira; finalak hira-

laren 15ean izango dira; partidak Alegiako frontoiaren jokatuko direlarik.

Udalak elkarteari egindako eskakizuna izan da txapelketa antolatzearena. Beste urteetan festetan partidak antolatzen ziren, baina oraingoan txapelketa moduan egitea pentsatu dute. Horrela, pilotariak beste motibazio bat izatea espero dute. Puntan dabilen pilotariak ekartzen saiatu dira.

21:30ean hasiko da gaurko jaialdia. Jubeniletan, Jaka eta Sanchez bikotea Elezkan eta Erosarbe bikotearen aurka ariko dira. Nagusietan, Otamendi-Zubiri, Urretabizkaia-Arzelus bikotearen aurka ariko dira.

Irudia Baliarrain



MAILA HANDIA FRONTENISEAN

Baliarraingo frontenis txapelketako irabazlea Iban Zabaleta izan da. Mikel Goitiari partida «bikain» baten ondoren irabazi zion finala, azaldu dute antolatzaileek. Hirugarren Antton Aranburu izan zen eta laugarren Unai Mendia. Nesketan txapelketa Elena Artieda eta Txus Bouvette izan ziren eta azpitxapelketa Bea Andueza eta Raquel Astiz. Laurek «maila handia» eman zuten. HITZA

HITZA Pilota Txapelketaren lehen partidak asteburuan jokatuko dira

I. Garcia

VIII. HITZA Pilota Txapelketa asteburu honetan hasiko da. Hiru frontoietan jokatuko dituzte partidak: Albiztur, Bidegoian eta Tolosan. Finalak hilaren 16an izango dira Tolosako Beotibar frontoiaren ostiral eta larunbatetan federatuta ez dauden ariko dira. Astelehenetan eta asteazketan federatuek jokatuko dute. Infantilak, kadeteak, jubenilak eta nagusiak binaka frontoi osoan ariko dira Tolosan.

Infantilak eta alebinak pilota mistoa erabiliko dute eta benjaminek pilota gozoa. Guztira 192 pilotari ariko dira lehia HITZA Pilota Txapelketan. Epaila lanean Andres Aramendi, Xuban Pikabea eta Iñaki Renobales ariko dira.

Intxurreko Oriak Udaberri Txapelketa irabazi du jubencil mailan

I. Garcia

Lau t'erdiko Udaberri Txapelketaren finalak jokatuko berri dituzte. Intxurre Pilota Elkarteak kideak hiru finaletan izan dira. Gipuzkoako mailan Intxurreko Oriak 22-18 irabazi zion Zegamako Atxari, jubeniletan lehen mailan. Partida gogorra izan zen eta Oriak bere fisikoki indartsua baliatu zuen partida irabazteko.

Eskualde mailan, jubencil mailan, Intxurreko bi pilotari lehiatu ziren elkarren artean. Arruek 22-13 irabazi zion Gorostidiri. Kadeteko bigarren mailan, Intxurreko Zabalak 8-22 galdu zuen bere finala.



www.funerariavascongada.com

Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI eta SULABEA



24 H..

943 694 873

Jaiak ez du etenik izango asteburu honetan ere

Asteburuan San Pedro jaietara jarraitzen emango diete, eta Amarrotzen auzoko jaiak ospatuko dituzte

Maier Ugartemendia

Herrietako festek ez dute atsedenik eskualdean. Asteasun, Leaburun eta Urkizu auzoan San Pedro jaiak ospatzen ari dira. Asteazkenean, Leaburun eta Urkizun asteburura arte atseden hartu zuten arren, Asteasun jubilatuen

eguna ospatu zuten, atzo. Hamaitakotako, herri kirol erakustaldia, bazkaria, eta dantza emanaldia egin zituzten, besteak beste.

Tolosako Amarrotz auzoan, uztailaren lehen asteburuan ospatzen dituzte urtero auzoko jaiak. Auzoko jaietara gaur emango diete hasiera. Arratsaldean, txupinazoarekin, eta jolasekin ekingo diete jaietara, eta iluntzean, heldu-agoentzat. Tolosako Musika Bandaren kontzertua izango da. Aurretik jaietan herrikiroa bat egingo da, izan ere, ostiralean, mozorro afaria antolatu dute festa batzordekoek. Bertako kideek

«jendea mozorrozotuta agertzeko gonbidapena» egin diete. Beste herrikiroa bat larunbat gaueko rock kontzertua izango da, Tolosako lau musika taldek joko dute bertan: Keiran, Flat Out, Switch eta Redrum.

Bestalde, XIII. antzerki astea antolatu dute Amarrotzko Antzerki Artisauak. Igandera bitarte egunero egingo da antzerki saioen bat.

Amarotzko Festa Batzordeak «tolosar guztiak» gonbidatu ditu amarotzkoekin batera «gure auzoa bisitatzea eta festetako giro alai eta atseginaz gozatzera».



Aimar Irigoien, harri jasotzailea, erakustaldia eskaintzen. M. UGARTEMENDIA

↓ Egitarauak

AMAROTZ

UZTAILAK 1, GAUR

- **16:00.** Jaietara hasiera emango diete txupinazoarekin eta buruhandiek. Haur jolasak txiki-entzatzat Txoko Txikian.
- **17:00.** Jolasak festa gunean.
- **18:00.** Seiko eta Eskobako finalak Beti Gazteren lokaletan. Jolasak amaitutakoan txokolate jatea.
- **18:30.** *Txurrimurri eta Morritoston zirkuan* antzerkia, Zurrumuru taldearekin.
- **20:00.** Tolosako Musika Bandaren kontzertua.
- **20:30.** Triki-kantari poteoa egingo dute.
- **21:30.** Auzoko mozorro afaria egingo dute.
- **24:00.** Disko Top Festa.

UZTAILAK 2, BIHAR

- **08:00.** Garbiketa Txukun Txarra Zaharra taldearekin.
- **10:00.** Diana Amarotzko Konpon Ezinak txarangarekin. Eta, Amarotzko Txirindulari Proba, *Patxi Rodrighez Memoria* la, kadede mailan Oriako Txirindulari eskolak antolatuta.
- **10:30.** Puzgarriak eta jolasak. Jolasen aurretik eta ondoren, buruhandiak.
- **12:00.** Bakailu ajoarriero lehiaketa.

- **15:30.** Puzgarriak eta jolasak. Aurretik eta ondoren, buruhandiak.

- **17:30.** Umeentzako zirkua taillerra, Koblakari taldearekin.

- **18:30.** Antzerkia: *Filamento farolero*, Xabier Larrearekin.

- **20:00.** Kontzertua: The Boogalords.

- **21:00.** Euskaraokea eta Play-back-a ume eta gazteentzat. Ondoren, afaria.

- **23:00.** Tolosako rock taldeen kontzertua.

- **24:00.** Dj Bull, festa gunean.

UZTAILAK 3, ETZI

- **09:30.** Diana Tolosako Txistulariekin. Ondoren, meza, lurreko Andra Mari elizan.
- **11:00.** Erromeria.
- **11:00.** Amarotzko IV. Artisan eta Eskularen erakusketa eta erakustaldia, festa gunean.
- **11:30.** Futbol Txapelketa 6-12 urte arteko auzoko neska-mutilentzat.
- **13:00.** Amarotzko Dantza Taldearen eta Dantzari Txikien emanaldia.
- **14:30.** Auzoko bazkaria, Konpon Ezinak Taldeak girotua.
- **17:00.** Antzerkia: *Malabaristas*, Los Kikolas taldearekin.
- **19:30.** Herri aureskua.
- **20:00.** Afari merienda, Zelaia anaien musikak girotua.

ASTEASU

UZTAILAK 1, GAUR

- **14:30.** Kuadrilen bazkaria egingo dute herriko plazan.
- **18:00.** Eskandalue elektrotxarangarekin kalejira egingo dute.
- **21:30.** Herri afaria plazan. Ondoren, DJ Oihan Vega.

UZTAILAK 2, BIHAR

- **10:30.** Asteasuko auzoen arteko futbol torneo. Taldeak: Kalea, Elizmendi, Goiballa eta Moraleja berria.
- **16:30.** Karta txapelketa frontoian. Mus txapelketa herrikoia: 16 urte arte eta 16 urtetik aurrera. 15:45-16:15, izen-emaitea. 16:30, txapelketaren hasiera. Bestalde, Txintxon Txapelketa herrikoia, 16 urtetik gorakoentzatzat.
- **18:00.** Zezen txiki eta pone-yak.
- **19:30.** Frontoian, Asteasuko Aitzondo Txirindulari Elkarteak antolatutako Asteasuko Pala Txapelketaren finala.
- **23:30.** Musika kontzertua herriko plazan: Kozka, Luz de Putas eta Ze esatek!

UZTAILAK 3, ETZI

- **11:00.** Pilota jaialdia. Asteasuko Esku Pilota Eskolako txapel-

ketako finala. Ondoren sagardo dastatzea plazan (sardinak eta txorixoarekin).

- **18:00.** Herri kirolak Ibergaingo soroan: Asteasuko taldeen arteko lehia. Ondoren Joxe Mendizabalaren *Erromeria*.

LEABURU

UZTAILAK 2, BIHAR

- **15:30.** Mus Txapelketa.
- **16:30.** Euskal Herriko Toka Txapelketarako sailkatzea, herriko plazan. Izena eman dai-teke 16:30etik 18:00etara, bertan.
- **17:00.** Pilota partidak. Lehenik herriko gaztetxoek jokatu dute; ondoren, Esnaola – Alonsok lau t'erdiko partida jokatu dute. Herri afariaren aurretik Andoni Otegi zorianduz *Euskal Presoak Euskal Herria* argazkia aterako da.
- **21:00.** Herri afaria. Ondoren, bertsolarien lehenengo saioa.
- **23:00.** Harri proba: Leaburuko Jose Manuelen zaldia, Belauntzako Jose Luisen zaldiaren aurka. Ondoren, bertsolarien bigarren saioa, eta jarraian trikitilari-ek alaituko dute gaua.

UZTAILAK 3, ETZI

- **10:30.** Euskal Herriko Toka Txapelketako finala.

- **11:00.** Meza nagusia.
- **12:00.** Txakolin dastatzea. Pintxoak ere izango dira. Goiz guztian zehar, zaldian paseoak eman ahal izango dira.
- **18:00.** Herri Kirolak: Arrospeide eta Azurmendi aizkolariak; eta Almitza elkarteko segalariak: Bixente Mitxelena, Juan Mari Agirrezabala, Migel Mari Jauregi *Altzo* eta Joxe Gabirondo. Ondoren, trikitilari-ekin festei amaiera emango zaie.

URKIZU

UZTAILAK 1, GAUR

- **21:30.** Mus txapelketa Alurtxiki elkartearen.

UZTAILAK 2, BIHAR

- **13:30.** Haurren bazkaria eta ume jolasak.
- **21:00.** Auzo afaria eta trikitilariak.

UZTAILAK 3, ETZI

- Egun guztian zehar, trikitilariak, puzgarriak, barra, urdaiazpiko zozketak...
- **11:00.** Tortilla prestaketa hasiko da.
- **11:30.** Sagardo eta tortilla lehiaketa.
- **12:30.** Toka.
- **18:30.** Bolo txapelketa eta ume jolasak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Alkateen elkarrizketak →**Galder Azkue** ◊
Amasa-Villabonako alkatea

Galder Azkue lehen aldiz dago udalean. Bildu koalizioarekin hartu du alkate kargua, eta zortzi zinegotzi izango ditu bere ondoan.

«Berrikuntza gisa, parte hartze batzordea eratuko dugu aurten»

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Galder Azkue izango da hurrengo lau urteetan alkate, Bildu koalizioak bederatziz zinegotzi eskuratuta. Taldekoak berriak dira, eta ekipo guztia martxan jartzen ahalik eta azkarren saiaturiko bada ere, herritarrei eta baita komunikabideei ere «denbora emateko eta pazientzia izateko» eskatu die.

Lehen egunak dituzue udalean. Zer moduz ari zarete lan berrira ohitzen? Oso gustura. Gauza berri pila bat, jende berria, azken finean lanbide berria da. Teknikari eta departamentu ezberdinekin lehen hartu emanak izan, atzean geratu diren proiektu guztien berri jasota eta momentuz ez dugu gehiegi sakondu. Pentsatzen dut hemendik aurrera hasiko garela erabaki gehiago hartzen, eta atzean utzitakoari aurrea hartzen saiatzen.

Zer sentitu zenuen alkatetzara hartu zenuenean?

Oso momentu polita izan zen. Osoko bilkura herriar pila bat etorri zen. Egia esan maiztaren 22ko gaua izan zen batik bat zirraragarria. Harrez gero, gehien-go osoa genuela jakinda, osoko bilkura oso lasaia izan zen. Jendearen babesa izan genuen, eta egun polita izan zen. Azken finean, ospakizun bat izan zen.

Zer dela eta hartu zenuen herriko alkate izateko erabakia?

Egia esan da, nire proiektu pertsonaletan hau ez zen sartzen. Beste gauza da inoiz burutik pasa ote zitzaidan edo ez. Bada bai, eta gauzak zer diren bizitza honetan, gauek goizera aukera hau ireki zaidala. Hasiera batean ezezkoa esan nuen. Bi haur ditut eta beste gauza batzuetan nuen burua. Gauzak hotzean pentsatuz eta jendearen bultzadaz ere bai, pentsatzen dut ohore bat dela herriaren alde lan egin ahal izatea. Bestalde, ikasteko aukera, esperientzia berri bat, eta era berean erroka eta ardura izango dira.

Pentsamendu horrekin hasi naiz, eta asko ikasteko gogoarekin eta asmatzeko esperantzarekin. Lan talde polita osatu dugu, eta herriaren babesa daukagu. Gustura nago.

Zein da aurreko legealdiaz eginduzko balorazioa?

Guk eta herritar gehienok uste dut pentsatzen dugula, oso legealdi konplikatu izan dela udalean egon den gobernuarentzako. Gogora ekarri, bi zinegotzi hil direla, ilegalizazioaren kontua hori egon dela, zentsura mozioa,.... presio handiarekin lan egin behar izan dute. Nik esango nuke oso lan ona egin dutela. Egoerak kontra egin dien arren, beraiek aurre egiten jakin dute, eta udala egoera onean utzi dute. Ea guk ere beste hainbeste egiteko modua dugun.

Zeintzuk dira zuen lanildoak?

Bildurekin Euskal Herri mailan azpimarratzekoa da politika egiteko moduaren aldaketa. Villabona berri, historikoki edo azken urteetan egon den udal gobernuak, herritarren parte hartzea bultzatu izan du. Horretan sakontzen jarraituko dugu, eta gure helburua herriarentzako lan egitea izango da. Hirigintzan herria txukuntzen jarraitu beharko dugu. Beti ere, beharren arabera, plangintza bat eginez. Programan aurkeztu genituen proiektu batzuk, uste dugu behar horiek betetzera datozela. Alde batetik, ludoteka baten kontua atera zen, eta bestetik kirol instalakuntza berri baten beharra ere badago, eta futbol zelaiaz ari gara. Plan orokorra ere aurreko udalak onartu zuten, eta itxaron beharrean gaude.

Faltan edo soberan bada zer bait?

Azkar egin beharrekoen artean Oriña ibaiko ur zikinen hodierria dago. Tolosatik honantz dator, eta beste arrazoi batzuegatik duela urte batzuk obra horiek gelditu egin zituzten, eta aurrekontuetatik kanpo geratu ziren. Bukatu



E. MAIZ

gabe geratzen bada, Villabona, ia 6.000 biztanleko herria, kanpogan geratuko da. Baina gure aginpidekoa ez denez, gure lana gainean egotea, eta ahal den neurrian presioa egitea izango da lan horiek egin ditzaten. **Bederatziz zinegotzi lortu dituzue.**

Lanak banatuko dituzue ezta?

Batzordeak izendatu ditugu, eta eraketa egitea falta zaigu. Bederatziz zinegotzi gara, eta lana banatu egin dugu. Zinegotzi batzuek bi edo hiru batzordez arduratu beharko dute baina, lanak banatu egin ditugu. Bakoitzaren perfil profesionalari begiratu diogu, eta baita norberak bere burua non ikusten zuten eroso errespetatuz. Lana banatu egin beharra dago.

Batzordeetan parte hartzeko aukera izango dute herritarrek orduan?

Bai. Batzorde guztiak iluntzeetan izango dira, eta herritarrei irekiak izango dira. Eta gainera guk ere, herritarrak batzordeetara etor daitezten bultzatuko dugu. Eragileei deialdiak eta gai ordenak luzatuko zaizkie. Berrikuntza egin beharra daukagu, baina batzordea martxan jarri eta ziurrik ordenantza ere bertan aterako proposamenen gain joango da.

Landa eremuari garrantzia ematen saiatuko zarete?

Nik uste dut Villabonan azken urteetan ahalegin berezia egin dela. Azoka duin bat egin da, non baserritarrak beraien produktuekin herrira etor daitezkeen, eta zuzenean saldu. Gure ustez salmerri irteera da bertako produktuei irteera duina emateko bide bakarra. Baldin eta, erabaki han-

diagoak hartzen ez diren bitartean behintzat. Bestalde, landa eremua lur sail bezala kudeatu behar da. Errekurtsu natural eta paisajistiko bezala ere kudeatu beharra dago, eta hori udalaren ardura denez, guk ahal den neurrian ahalegina egingo dugu. Alde batetik landa eremu txukun bat izateko eta bestetik, bertan lan egiten duten langileen eta enpresen jarduna errazteko.

Gizarte zerbitzuek ere inoiz baina indar handiagoa izan beharko dute.

Gu ezkerreko alderdi bat gara. Babes soziala gure printzipioetan dago, eta lehenetsi egingo dira, noski. Gizarte zerbitzuetatik hasi eta herritarrei begira dauden bidez sistema guztiak hartuko ditugu kontuan. Beti ere, udalak dituen eskumen eta aukeren barnean. Dirua da arazoa.

Udala egoera onean hartu duzuela aipatu duzu. Zein da gaur egungo egoera?

Kudeaketa ekonomiko on baten ondorio da udala egoera onean egotea. Egoera orokorra ez da ona, eta horrek urte hauetan gastuak kontrolatu eta zuzen eramatea eskatzen duen. Horren ondorioz, gaur egun Villabonak ez dauka arazo ekonomiko larririk. Guk ere ildo horretan jarraituko dugu; fantasia gehiegirik gabe proiektu txikiak aurrera eramaten saiatuko gara herritarren mobilizazio eta parte hartze aktiboarekin. Urte onak izan diren horietan politikoa izugarriko proiektuak, publikitateak, enpresa sortzaileak,.... egiten ibili dira. Errealitatek kanpo ikusi dut udalen kudeaketa azken urte hauetan. Udalak dituen baliabideak ditu, eta horren barruan sartu behar dugu.

Herriaz gain, eskualdea ere hortxe dago.

Eskualde mailan, Gipuzkoa mailan edota Euskal Herri mailan koalizioak markatuko digu zein den gure ildo. Baina guk garbi ditugu irizpideak zeintzuk diren.

Tolosaldea Garatzen, Tolomendi, Zabor Mankomunitatea,...

Bai, hor daude Tolosaldea Garatzen bezalako agentziak, jasagarria izatea, ingurunearen zaintzea, garapen ekonomikoa,.... gai horien inguruan irizpide zehatzak baditugu. Ikusi egin beharko dugu aurreko udal gobernuak egin duten lan horren jarraipena izango den, edota gauza batzuk aldatu egin beharko diren. Hori oraindik erabakitzeko dago. Organismo autonomoak dira, eta aldatzea guzti hauek denbora behar dute. Adibidez, Gipuzkoa Zero Zabor ekimenarekin bat egin dugu, eta inongo zalantzarik gabe horrek eragina izango du. Beste guztiak bezala, aurretik lana eskatzen du. Espero dut, eta nik uste dut, denontzat ona izango dela Gipuzkoa zaborren kudeaketan eredu bihurtzea. Beste modu bateko zabor kudeaketa bat aurrera eramanez. Ia horrela den.

Osasun publikoaren gaia ere hortxe dago.

Eskualde mailan, Tolosaldeko Osasun publikoaren gatazka hori daukagu. Guk garbi erakutsi dugu bai hauteskunde kanpaina zehar, eta orain ere horrela erakutsi dugu. Osasunak publikoa izan behar duela diogu. Osasuna esku pribatuetan uzten badugu gaitzen aterako gara herritarrok. Hori ekidin beharrean gaude.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Zorionak Aitor!

Zorionak Lizartzako ezker abertzalearen partetik. Eutsi goiari!



Urte askoan!

Aitor (Lizartza). Besarkada bero-bero bat. Udala berreskuratu dugu eta laster zuek ere gurekin izango zarete. Lizartzako osaba-izeba eta lehengusuak.

Zorionak!

Antton Garro eta Ines Arrieta. Zorionak familia guztiaren partez eta ondo pasa dezazuela biharko eguna. Uztailaren 5ean 25 urte ezkondu zirela.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa**. Bronte, C.I. Korreo kalea, 20 943 67 60 13.
- **Leitza**. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Leitza**. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

ETZIDAMU

- **Ibarra**. Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15
- **Betelu**. Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun**. Mutiolo, A.M. San Martin, 5. 112.

BIHAR

- **Tolosa**. Morant, R. Zabalzarreta, 1. 943 67 36 49.
- **Leitza**. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

ETZI

- **Tolosa**. Olarreaga, M.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak



508 BERRIA

*Prestutasuna eta teknologia
Zirrara eta exigentzia
Sorkuntza Berriko berrikuntza*



*Ez bilatu gehiago,
Tolosa Motorren zure amesteko autoa daukagu,
508 Peugeot berria.*

TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-508

